

BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

1131

AGINDUA, 2016ko martxoaren 8koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, bostehun milioi euroko Euskadiko zor publikoa jaulkitzeko eta eragiketa horren ezaugarriak zehazteko dena.

Abenduaren 29ko 246/2015 Dekretuaren bidez, erabakitzen eta baimentzen da 2016ko ekitaldian zorpetze-eragiketak egitea, gehienez 1.230.799.000 eurokoak, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko 2016. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 9/2015 Legeak 10. artikuluko 1. atalean Gobernu Kontseiluari emandako baimenaren arabera.

Dekretu horren xedapen gehigarriak xedatzen du ezen, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legean agindutakorekin bat etorritz, Ogasun eta Finantzetako sailburuari dagokiola, agindu baten bidez, xedapen horretan erabaki eta baimendutako zorpetze-eragiketak egiteko tresnak eta modalitateak zehaztea, bai eta dekretu horretan jaulkipenari buruz aipatu ez diren finantza-baldintzak eta ezaugarriak zehaztea ere, dekretuaren aurreikuspenen barruan betiere. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, baldin eta zor publikoa balio gisa jaulkitzen bada.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– bostehun milioi (500.000.000) euroko Euskadiko Zor Publikoa jaulkitzea, abenduaren 29ko 246/2015 Dekretuan jasotzen diren baimenei jarraikiz.

2. artikulua.– Jaulkiko den Zor Publikoak honako ezaugarri hauek izango ditu:

a) Zenbateko nominala: 500.000.000 euro.

b) Modalitatea: bonuak.

c) Jaulkitze-prozedura: jaulkipen publikoa.

d) Jaulkitze- eta ordainketa-data: 2016ko martxoak 16.

e) Korritua: finkoa, urteko nominalaren % 1,75, urte bakoitzeko apirilaren 16an ordaintzeko, 2017tik 2026ra bitartean.

f) Jaulkitze-prezinoa: % 99,194.

g) Amortizazio-prezinoa: parekoa, balio nominalean.

h) Amortizazio-data: 2026ko martxoak 16.

i) Balioen adierazpidea: kontuan eginiko oharrak.

3. artikulua.– Harpidetza.

Jaulki beharreko jaulkipen-balioen harpidetza jaulkipena egiteko mandatua duen erakundearen edo erakundeen bitartez bideratuko du Ogasun eta Finantza Sailak. Erakunde horiek horretarako gaituta daude, balioen merkatuaren indarreko araudiaren arabera.

4. artikulua.– Gaikuntza.

Ogasuneko eta Finantza Politikako sailburuordeari baimena ematen zaio zorpetze-eragiketa hau egiteko behar diren kontratuak eta gainerako dokumentu erantsi eta osagarriak sina ditzan.

5. artikulua.– Harpidetza, jaulkipenaren interesak eta amortizazioa Bilboko Burtsako Elkarteko Kudeatzailearen Konturako Idatzoharren Zerbitzuaren bidez ordainduko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari buruzko irailaren 30eko 211/1997 Dekretuaren 37. artikuluan agindutakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 8a.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
RICARDO GATZAGAETXEBARRIA BASTIDA.